

Hitzaurre gisa

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org



Euskara erabiltzeko planak: elkarrekin berritzen izenburupean egin zen Udaltop Soziolinguistika Jardunaldia 2014ko maiatzaren 15ean eta 16an, Lasarte-Orian. Jardunaldiotan euskal erakundeetan euskara-planen garapenaren inguruko lanketa, plan horiek hobetzeko egindako interbentzioak eta planteaturiko etorkizuneko oinarriak izan ziren aztergai.

Jardunaldiaren antolaketan parte hartu zuten Lasarte-Oriako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Soziolinguistika Klusterrak. Laguntzaile izan ziren Eusko Jaurlaritza eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA). Gainera, hainbat adituk

ere zeresan garrantzizkoa izan zuten: herri administrazioetako euskara-teknikariek, aholkularitza-enpresek eta hizkuntza-erabilera gai hartuta aritu diren ikerlari eta adituek, besteak beste. Hortik dator bada jardunaldiaren izenburua: *Euskara erabiltzeko planak: elkarrekin berritzen*.

Bat Soziolinguistika Aldizkariak egitasmo horren berri izanik, interes berezia izan du bertan landutakoa bere irakurleei eskaintzeko, eta horregatik zenbaki monografiko hau. Eskerrak eman nahi dizkiegu goian aipaturiko erakunde zein eragile guztiei, euren ezagutza baliatzeko aukera emateagatik. Zenbaki honetan, beraz, Jardunaldiko web gunean aurrez argitaratutako testuak edo testuetan oinarrituriko artikuluak eskainiko ditugu. Ez dugu aukerarik izan nahi genituen guztiak eskaintzeko, izan ere, hainbat kasutan, (EraLan 3 proiektuari dagozkion testuekin bereziki) argitalpen espezifiko bat prestatzen ari da Soziolinguistika Klusterra.

Jardunaldiaren lehen blokea alderdi teorikoari eskaini zitzaion, eta horregatik unibertsitate-esparruan ari diren adituek zuzendu zuten. Horien artean **Iñaki Martínez de Lunaren** hitzaldia aldatzen dugu hona “Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa” izenburupean. Artikuluan, Herri Administrazioa betetzen ari den rolaz hausnarketa egin ondoren, 2008-2012 bitarteko epealdiko IV. Plangintzaldiaren ebaluazioaren irakurketa soziolinguistikozorrotza eskaintzen du. Egilearen iritziz, herri administrazioen planek onura nabarmena ekarri dute zenbait eremu formaletan eta lankideekin neurtutako erabileraren igoera gerta dadin. Eta aitortza hori egin beharrekoa da egilearen ustez. Nolanahi ere, eskaera edo erronka zehatza ere planteatzen du: “Zer-nolako aurrerakada ikus genezakeen planei kudeaketa zorrotza aplikatuko balitzazie eta beren alderdi ilunak ezagutza zientifikoaz argitu eta landuko balira?” Azken batean planteatzen ari da ezagutza teorikoa eta eskarmentu praktikoaren arteko elkarlotze zorrotza ezinbestekoak direla eraginkortasuna areagotu nahi baldin bada.

Zenbakiaren bigarren artikuluan **Patxi Baztarrika** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak *Euskararen Erabilera Plan Nagusiaren* gertaturiko hainbat berrikuntza aipatzen ditu modu laburrean, bigarrenean, artikuluari izena eman dion “Amets txikien” inguruan bere ideiak bilduz. Erdigunea estrategia berritzaileak planteatu beharrean kokatzen du; hau da, ikerkuntza eta esperimentazioa uztartuz diseinatu eta sistematizatu behar direla planak, alegia. Bide horretan, dagoeneko sortu diren hainbat erakunderen energia profitatuz, epe zehatzetan helburu lorgarriak planteatzea beha-

rezkoa da. Esate baterako, nola sustatu erakundeetatik liderren hizkuntza jokaera eredugarriak? Nola igaro gaztelaniazko hizkuntza erabileratik euskarazkora? Zer egin erakunde-ordezkariek jendaurreko ekitaldietan euskara gehiago erabili dezaten? Helburu horrekin, erakunde sozialek eta akademikoek egin dezaketen ekarpenekin elikatu beharra dagoela azpimarratzen du *Jardunaldiaren* leloa bere eginez: *elkarrekin berritu*.

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) Euskararen Erabilera Planek trataera berezitua dute ezinbestean, beste inon ez bezalako aukera soziolinguistikoak daudelako euskara modu naturalean (edo normalizatuan nahi bada) erabilia izan dadin lortzeko. Gai horri heldu dio, hain zuzen, **Imanol Harok**. Izan ere, euskal udaletan diseinu ausartak egin izan diren arren, behin eta berriro legearen aldetiko mugekin edota zailtasunekin topo egin dute. Azken finean, elebitasun zorrotzetik haragoko planteamenduak garatu beharko lireratekeela dio egileak, hizkuntza-eskubideak bermatuak izan daitezten. Horrez gain, etorkizuneko erronken inguruko lehen hurbilketa bat ere egin du: alde batetik, muga legalak higitzearen aldeko posizionamendua, eta bestetik, maila teknikoan hobetu beharra hainbat gairen inguruan, esate baterako, metodologia arindu beharraz, terminologia beraren birpentsatzeaz, formazio espezifikokoaren beharraz, datuen trata-

menduaz edota planen euren jarraipenaz, besteak beste. Horiek guztiak egileak erronka modura planteatzen ditu, bizi gaituen krisiari aurre egin nahian.

Udaltop Soziolinguistika Jardunaldiaren monografia honi amaiera emateko **Mikel Irizarrek** “Aurrerapausoak administrazioetako euskararen erabilera planetan: erronka eta aukera berriak” artikulua idatzi du jardunaldian bertan eginiko hitzaldian oinarrituta. Bere iritzian, euskararen normalizazio-prozesua aro berri baterako bidean da, eta hurrengo helmugak irudikatzerakoan konformismoa eta ameskeria, biak ala biak, alboratzeko gomendioa egiten du. Bere usuetan, ametsa behar-beharrezkoa izan arren, egingarria dela ziurtatu beharko da; esan nahi baita nolabaiteko “amets doituek” gidatu beharko luketela helmuga horren definizioa.

BAT Aldizkarian ohiko dugun modura, bi artikulua ekarri ditugu GUREAN Atalera. Lehenean, Tolosa aldeko gazteek hitanoari buruz duten pertzepzioak, diskurtsoak eta praktikak gai hartuta burututako ikerketa baten berri ematen du **Josu Ozaitak**. Ikerketa egiteko 18 eta 28 urte bitarteko gazteen behaketa eta horien artean eginiko 12 elkarrizketa baliatu ditu egileak. Interesgarria da landa eta hiri guneetan antzemandako aldea, izan ere, baserri giroarekin lotzetik harago hainbat gazterengan hitanoak harridura eta erakargarritasuna ere sortzen du. Ikerketaren emaitza modura egileak planteatzen du hitanoak etorkizunari aurre egiteko duen erronka bere funtzionaltasunean eta arau sozialaren aldaketan egon daitekeela.

Zenbakiari amaiera emateko Kataluniako gazteen jarrera linguistikoen inguruan egin-

dako ikerketa baten berri eman nahi dugu. **Josep Ubaldek** eginiko artikulua *Treballs de Sociolingüística Catalana* aldizkarian argitaratu zen 2013an eta orain interesgarria iruditu zaigu geure aldizkarira ekartzea. Ikerketa RESOL proiektuko datuak baliatuz eginikoa da. Lehendik ere izan dugu RESOL proiektuaren berri Eusko Jaurlaritzarekin batera Soziolinguistika Klusterra aurrera daraman Arrue proiektuko datuak modu konparatiboan aztertzeko aukera izan dugulako. Horren adibide Xavier Vilak VI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldian (2013ko urtarrila) egindako hitzaldia (<http://www.sociolinguistika.org/jardunaldia/multimedia>). Hemen aurkezten dugun artikuluan Kataluniako eta La Franja deritzon Aragoiko mugako eremu katalanduneko zenbait herritako DBHko lehen mailako nerabeen jarrera linguistikoen analisi konparatiboa egiten da. Zehatz-mehatz esanda, ikerlan honen helburu nagusia nerabeen jarrera linguistikoen kausak zein diren jakitea da. Azken finean, geure errealitatea hobeto ulertzeko elementuak eskaintzen dituelakoan gaude, kasu honetan euskal gazteen hizkuntza-jarrerak aztertzeko eta ulertzeko elementuak, hain zuzen ere. •